



## PRENTSA OHARRA

# Haziz hazi hezkuntza sareak, bere hirugarren jolasGUNE ospatuko du Erreterian hezkuntza aniztasunaren aldeko proposamenekin

GETXO, 2018ko maiatzaren 21ean

Maiatzaren 27an, Jolasaren Nazioarteko Eguna dela eta, Haziz hazi elkarteak -Hezkuntza, haziera eta bidelaguntza sareak- jende eta giroari dagokionez beste urteetako arrakasta ikusita (Arabian eta Bizkaian), JolasGUNE urteroko jaialdiaren hirugarren edizioa ospatuko du, Erreteriako Fanderia parkean.

Ospakizun hau, adin guztietara zuzenduriko ekimen ludikoa izateaz gain, **hezkuntza eredu anitzak biltzen dituen hezkuntza sistema proposatzen du**. Era berean, familia eta hezitzaileek eginiko esfortzutik hazi berriak diren alternatiba eta berrikuntza pedagogiko zelulak integratu nahi ditu. Proiektu hauek, nolabait, egungo errealitate sozialak dituen hutsune eta arazoei erantzuten baitiote.

Azken helburua da pertsonen garapen integrala sustatuko duen **paradigma aldaketa** lortzea. Paradigma berri honek, **proposamen anitzak integratu eta bultzako ditu sistemaren eraberritzea eraginez**, metodologia berriekin, proiektuen suspertzearekin eta eredu indibidualizatuekin.

JolasGUNE **haur eta helduei zuzenduriko ekintza anitzak** eskaintzen dituen ekitaldi irekia da. Bertan, hitzaldiak, tailerrak, jolasak, musika, bazkari herrikoa eta foodtruck eskainiko dira. Horrez gain, hainbat sorpresa eta azoka bat ere egongo da, produktu jasangarri eta hazten ari den mugimendu honekin erlazonatutako artikuluak dituen.

Jaiegunak **jolasa, bizitzako etapa guztietan, ikaskuntza eta hazkuntzarako baliabide nagusizat hartzea aldarrikatzen du**. Bertan, giza naturaren ezagutza sakonetik, benetako beharrei erantzunda eta bakoitzaren erritmo naturalei egokituta, errespetuan oinarritutako hezkuntzaren alde lan egiten duten familia, hezitzaile eta hezkuntza proiektu desberdinak bilduko dira.

Haziz hazi elkarteak, familia, partikular eta hezitzaileez gain, **EAE-a, Nafarroa eta Kantabriako hezkuntza proiektu** ezberdinek osatzen dute, **eredu propioak garatzeko beharra** ikusten dutenek.

### HazizHaziarekin harremanetan jartzeko:

Gaztelania: Rubén Méndez (HazizHaziako presidentea) · mugikorra: 656 749 654

Euskara: Andrea López de Pariza (HazizHazi) · mugikorra: 616 594 955

Posta elektronikoa: [info@hazizhazi.org](mailto:info@hazizhazi.org) · [www.hazizhazi.org](http://www.hazizhazi.org) · <https://www.facebook.com/hazizhazielkartea/>

PRENTSA dokumentazio, argazki eta materialekin: <http://www.hazizhazi.org/jolaspress/>